# Tratu onez



## Ordezkariak prestatzeko agenda

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXEETAN

**BIZIKIDETZA HOBETZEKO VI. KANPAINA**

Nafarroako Gobernua

# Tratu onez

## Ordezkariak prestatzeko agenda

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO IKASTETXEETAN
BIZIKIDETZA HOBETZEKO VI. KANPAINA

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Izenburua:
TRATU ONEZ. Ordezkariak prestatzeko agenda.
Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan bizikidetza hobetzeko VI. Kanpaina.

Egilea:
Bizikidetzarako Aholkularitza. Hezkuntza Departamentua

© NAFARROAKO GOBERNUA
Hezkuntza Departamentua, 2012

Diseinua eta maketazioa: proyectos@anacobo.com

TRATU ONEZ

*Egundoko ahalmena dugu*
*min egiteko, baina*
*besteei zoriontsu izaten*
*laguntzeko ere bai.*
*Zurea da aukera!* 

AUSART ZAITEZ OZEN ESATERA:



- Ez naiz isilduko.
- Ez diot inori min egingo, ezta min egiten duenari ere.
- Nire ikaskiderik ez da gaizki pasatzen eta bakarrik egonen, nik lagunduko diot.
- Inor mindu badut, sentitzen dut, ez nintzen konturatzen.
- Nire burua defendatzeko ez dut inor zertan eraso, orain badudalako ulertzen eta babesten nauenik.
- Ez zaitez gehiago gorde gaizki pasatzen ari zarelako: ni zurekin nago.
- Ez nekien min egiten ari nintzenik, ez dut berriz eginen.
- Ni ez naiz erruduna, inork ez du niri min egiteko eskubiderik.
- Zoriontsua izateko eskubidea eta betebeharra dut.
- Oraintsu konturatu naiz nire isiltasunaren ondorioez.
- Ez diot inori eginen besteek niri egitea gustatzen ez zaidana.

[Oraindik gai ez bazara, zure kolkorako esan]

DATU PERTSONALAK ETA IKASTETXEAREN DATUAK:

Izen-abizenak:..............................................................................................................

Helbidea: ......................................................................................................................

Herria: ..........................................................................................................................

Etxeko telefonoa: ........................................ Sakelako telefonoa: ...........................................

Posta elektronikoa: .......................................................................................................

Ikastetxea: ...................................................................................................................

Kurtsoa: .......................................................................................................................

# Aurkezpena

*Ordezkari maitea:*

*Zure lagunek beren ordezkari izateko hautatu zaituzte, zorionak! Horrek esan nahi du zutan konfiantza dutela, eta horrek, seguru, bai harrotasun bai erantzukizun handia emanen dizu. Eta agian beldur pixka bat ere bai: ongi egiteko gauza izango ote naiz?, hala ariko zara sobrare zeure buruan...*

*Inor zutaz fidatzea gauza ederra da; denbora joan ahala ikusiko duzu fidagarritasuna ate gehien irekitzen dizkigun ezaugarri pertsonaletako bat dela. Orain zure taldeak zutan jarri du bere konfiantza.*

*Hona hemen, beraz, material hau, ordezkari serio eta baliagarria izateko prestatuz joateko, zure klaseak behar duen bezalakoa. Jo gogotik orain hasi behar duzun egitekoan.*

*Eskerrik asko, bada, izan duzun disponibilitateagatik zure lagunek eskuetaratu dizuten eginkizuna zure gain hartzeko.*

José Iribas Sánchez de Boado
Hezkuntza Kontseilaria

# Aurkibidea

**A.** Ordezkarien motibazioak ........ 9

**B.** Ordezkarien profila ........ 11

**C.** Borondatezko lana ........ 15

**D.** Zein egoeratan esku hartu behar duten ordezkariek ........ 21

**E.** Jazarpena (*bullying*) ........ 29

**F.** Gatazka baten aurrean ........ 39

**Agenda** ........ 45

**Kontaktu interesgarriak** ........ 147

# A. Ordezkarien **motibazioak**

## ORDEZKARIENDAKO ARIKETAK

Garrantzitsua: iritzien, sentimenduen... munduan ari gara, beraz erantzunak pertsonalak dira beti.

**Honela egingo dugu lan:**

**1.**
**Banakako gogoeta.**
[5 minutu]

**2.**
**Mailako gogoeta** (maila bereko ordezkari guztiek, *mikrofono birtuala*[1]).
[10 minutu]

- Zergatik izan nahi duzu zure gelako ordezkaria? Zein dira zure arrazoiak?
- Zure ustez, nahikoa dira ikasturte osoan ordezkaria izateko?
- Zure ustez, zein dira aurkitu ditzakezun zailtasun nagusiak?

**3.**
**Talde osoko gogoeta,** *mikrofono birtuala biribilean*[2] erabiliz.
[20 minutu]

- Zeintzuk dira ordezkari bihurtzeko baliozko arrazoiak eta zeintzuk ordezkari izaten jarraitzekoak?
- Zein ekipotan mugituko gara? Nork lagun gaitzakete?

---

1. **Mikrofono birtuala:** Mikrofono baten antzeko objektu bat, eskurik esku pasatuko dena. Objektu hori eskuan duenak bakarrik hitz egin dezake. Mikrofonoa pasatzeko, aldez aurretik adostutako keinua eginen da, adibidez, hitz egin berri duenari begira eskua luzatzea.

2. **Mikrofono birtuala biribilean:** Parte-hartzaileak biribilean eseriko dira eta mikrofono birtuala pasatzen joanen dira, beti eskuinean dutenari emanen diotelarik. Mikrofonoa duenak bakarrik hitz egin dezake eta parte hartu ondoren eskuinekoari pasatuko dio; honek hitza hartu dezake edo ez, ez badu nahi, eskuinekoari pasatuko dio mikrofonoa, eta hala hurrenez hurren.

# B. Ordezkarien **profila**

**Honela eginen dugu lan:**

LEHEN ZATIA:

Galdera honi erantzunen diogu: ***nire ustez, nolakoa izan behar du ordezkari on batek?.*** Ezaugarri bat birziklatutako paper batean idatzi eta arbelean itsatsiko dugu. Nahi beste ezaugarri idatzi eta itsatsi ditzakezu.

BIGARREN ZATIA:

Idatzitako ezaugarri pertsonalak talde handian ordenatuko ditugu, itsatsitako paperak arbelaren barruan tokiz aldatuz. Errepikatutakoak batera paratuko ditugu. Garrantzitsuenak aukeratuko ditugu. Guztiok solas eginen dugu, horretarako *tenis pilota* baliatuta [3].

Ezaugarriak irakurriko ditugu, badaezpada eta ezer ez ahazteko beste pertsona batzuen iritziak ere irakurriko ditugu, eta ondoko galderei erantzunen diegu:

**Proposatutako ezaugarri guztietatik,**

**a)** Zeintzuk dira garrantzitsuenak? ..............................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

**3. Tenis pilota:** Hitza emateko beste modu bat. Ariketa zuzentzen duenak pilota eramanen du eta hitz egin nahi duenari pasatuko dio. Pilota beti zuzendariak pasatu dezake edota parte-hartzaileek batak besteari pasatu diezaiokete.

**b)** Zeinetan izan ditzaket zailtasunak? ..........................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

**c)** Zer egiten ahal dut zailtasun horiek gainditzeko? ............................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................

........................................................................................................................................................



## BESTE PERTSONA BATZUEN IRITZIAK:

Ikasgelako ordezkari on baten lanerako lagungarri izan daitezkeen **ezaugarri pertsonalak:**

- Malgua da bere ideiei dagokienean. Aldatzeko gai.
- Arduratsua.
- Enpatiaduna.
- Pazientziaduna. Itxaroten daki, ez da bere onetik ateratzen.
- Sekretuak gordetzeko gai.
- Modu aktiboan entzuten du.
- Ongi hartzen ditu kolpe txarrak.
- Errespetuz jokatzen du. Beste pertsona baldintzarik gabe eta haren guztiarekiko errespetuz onartzea.
- Objektiboa. Arazoak ahalik eta ikuspegi gehienetatik begiratzen saiatzen da.
- Zintzoa.
- Konfiantza sortzeko gai da.
- Ez du epaitzen.
- Baikorra.
- Argi ditu bere eginkizuna eta bilatzen dituen helburuak.
- Emozioak eta sentimenduak adierazten laguntzen du. Badaki adierazpen horiek jasotzen. Emozio adierazpenekiko sentibera da.
- Arrakastarekiko sentibera da gauzak ongi doazenean.
- Manipulatzen zaila da.
- Gatazkei buruz zer edo zer daki.

**Gatazketan:**

- Inpartziala da. Horretarako gai da. Gatazka ebazteko jarduten du, baina inoren alde jarri gabe.
- Aldeen eskariei seriotasunez erantzuten daki.
- Bitartekotza prozesuan ez du epaitzen.
- Ez du aldeen ordez erabakirik hartzen, haiek erabaki dezaten laguntzen du.
- Bere burua ez du emaitzen erantzuletzat, prozesuaren erantzuletzat baizik. Aldeen esku uzten du ebazpenaren erantzukizuna.
- Kontzienteki uko egiten dio aldeen erabakiei eta iritziei buruzko epaiak emateari, ez du epaitzen.
- Bere iritzia eman gabe entzuten daki.
- Kontzienteki ikuspegi baikorra hartzen du aldeen gaitasunarekiko.
- Aldeek ezin dutenean gaia argitu, horretan laguntzen die. Ez da itotzen.
- Gatazkaren oraingo eta hemengoari erreparatzen dio. Gehiago lantzen ditu oraingoa eta hemengoa egoera gatazkatsua baino.
- Lehenaldiari buruzko azalpenak entzuten ditu orainaldia ulertzen laguntzen dutelako.
- Apala da, bere interpretazioa ebazpenaren zati bat baino ez da.
- Emaitza arrakastatsua izateari baino garrantzi handiagoa ematen dio aurrerapausoak ematen joateari.

# C. **Borondatezko** lana

## ORDEZKARIAK BOLUNTARIOAK DIRA

Zure ikaskideekin mintzatu ondoren erantzun behar dituzu galdera hauek. Ariketaren bukaeran beste pertsona batzuek emandako erantzunak paratu ditugu. Ez dituzu "txuleta" gisa erabili behar; ikusiko duzu nola aurkituko dituzun erantzun interesgarriak zure buruko eta bihotzeko liburutegiak arakatzen badituzu. Gero atzekoa begiratu eta beste pertsona batzuen iritziak ikusiko dituzu: dagoeneko gai hauek landu dituzten zu bezalako neska-mutilen iritziak.

**1.** Zer da boluntario izatearen kontu hori?..........................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

**2.** Jendea, zergatik egiten da boluntario? Ezagutzen duzu boluntariorik? Ezagutzen duzu boluntariotza esperientziaren bat?

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

..........................................................................................................................................

**3.** Zuen taldearen ustez, zer egiten dute boluntarioek? ..........

**4.** Boluntarioa, zer ez da? ..........

**5.** Zure ustez, ikastaldeko ordezkaria izatea boluntarioa izateko modu bat da? ..........

## BESTE PERTSONA BATZUEN IRITZIAK:

**Zer da boluntario izatearen kontu hori?**

* Zure denbora librea lana edo ikasketak ez diren gauzetan ematea.
* Norberaren onura bilatu gabe lan egitea, arlo ezberdinetan, jarraitutasunez.
* Gizarte interesen alde lan egitea. Pertsonen alde lan egitea.
* Egitasmo baten barne lan egitea.
* Arazoen iturriak mozten saiatzea, eta ez bakarrik jarduera edo ekintza konkretu batean lan egitea.
* Benetan sinestea beste pertsonei laguntzeko gaitasuna duzula... eta horren arabera jardutea.
* Benetan sinestea pertsona talde bat ongi egon dadin taldeko kide guztiek egon behar dutela ongi.

**Boluntario izateari buruzko lau ideia.**

* *Erabaki libre baten ondorio da*. Erabaki etiko, pertsonal, doakoa, ordainetan ezer espero ez duena.
* *Solidaritatea*. Beste pertsonak eta haien duintasuna errespetatzea eta berekoikeriaren kontra borrokatzea. Ekintza boluntarioa konpromiso solidarioa da, gizartearen egoera edo talde konkretu batena hobetzea helburu duena.
* *Ekintza*. Jardun konkretua eskatzen du.
* *Antolamendua*. Boluntarioek taldean lan egiten dute.

**Jendea, zergatik egiten da boluntario?**

* Arrazoi ideologiko, etiko, erlijiosoak...
* Bestelako arrazoiak edo beharrizan pertsonalak.
* Ematearren eta jasotzearren.
* Beste pertsona batzuei laguntzeko.
* Pertsona ahulenak defendatzeko.
* Injustiziaren kontra borrokatzeko.
* Mundua aldatzeko.
* Suminduta daudelako.

**Zer egiten dute boluntarioek?**

- Ikertu.
- Informatu eta sentiberatu.
- Orientatu eta aholkua eman.
- Hezkuntza.
- Salatu eta erreklamatu.
- Bitartekoak bildu.
- Laguntza eta arreta zuzena eman.
- Planifikatu eta kudeatu.

**Boluntario lanaren esparruak:**

- Soziala.
- Kulturala.
- Hezkuntzakoa.
- Ingurumena.
- Osasuna.
- Herritarren parte-hartzea.
- Kolektiboen sustapena.
- Giza eskubideak.
- Nazioarteko lankidetza.
- Larrialdiak eta hondamendiak.
- Garapen sozioekonomikoa.
- Aisialdia.

**Pertsona boluntarioa ez da:**

- ✘ Norberaren onura bilatzen duena.
- ✘ Beste zer eginik ez duena.
- ✘ Botere tsuen lagun den norbait.
- ✘ Sistemaren nahiak lehenesten dituena.
- ✘ Bakarrik lan egiten duena.
- ✘ Ezkorra.

## ZU IKASGELAKO ODEZKARIA ZARA

***Boluntario zarela esaterik baduzu?***

Honi guztiari buruz apur bat hausnartu eta gero ikaskideekin parteka ezazu. Gogoeta egiteko, marka ezazu laukitxoa uste baduzu ezaugarri hori baduzula:

- ☐ Besteak (denak) errespetatzen dituzu.
- ☐ Jendearen alde arituko zara.
- ☐ Laguntzea gustuko duzu. Egin nahi duzu.
- ☐ Ahulak defendatzea gustatzen zaizu. Egin nahi duzu.
- ☐ Injustiziaren kontra borrokatu nahi duzu.
- ☐ Mundua aldatu nahi zenuke.
- ☐ Injustiziak sumintzen zaitu.
- ☐ Baikorra eta alaia zara.
- ☐ Lagunkorra zara.
- ☐ Jakiteko eta gauzak egiteko gogoa duen norbait zara.
- ☐ Elkar ongi tratatzea gustatzen zaizu.
- ☐ Zure denbora librea lana edo ikasketak ez diren gauzetan emanen dituzu.
- ☐ Zure onura bilatu gabe lan eginen duzu, arlo ezberdinetan, jarraitutasunez.
- ☐ Gizarte interesen alde lan eginen duzu, pertsonen alde. Zure ikaskideen alde lan eginen duzu. Haien ordezkari arituko zara zuzendaritza taldearen eta irakasleen aurrean.
- ☐ Egitasmo baten barne lan eginen duzu.
- ☐ Arazoen iturriak mozten saiatuko zara, eta ez duzu bakarrik jarduera edo ekintza konkretu batean lan eginen.
- ☐ Benetan sinesten duzu besteei laguntzeko gaitasuna duzula... eta horren arabera jardungo duzu.
- ☐ Benetan sinesten duzu pertsona talde bat ongi egon dadin taldeko kide guztiek egon behar dutela ongi.
- ☐ Libreki aukeratu duzu egitea.

Ikastaldeetako ordezkarien berariazko ezaugarriak:

- ☐ Objektiboa zara.
- ☐ Arduratsua zara.
- ☐ Fidagarria zara.
- ☐ Konfiantza eragiten duzu.
- ☐ Manipulatzeko zaila zara.



# D. Zein **egoeratan** esku hartu behar duten ordezkariek

## ZER EGIN BEHAR DUT EGOERA HAUETAN?

a) *Nire ikasgelara ikaskide berri bat iristen denean.*

b) *Nire ikaskide bat gaixotzen denean.*

c) *Ikaskideek eskatzen badidate taldearen izenean irakasleei zerbait esateko.*

d) *Irakasle baten jokabideak arduratzen gaituenean.*

e) *Batzar bat zuzendu behar dudanean.*

f) *Gure ikastetxean zerbaitek ez duela behar bezala funtzionatzen ikusten dugunean.*

g) *Diskriminazio portaera bat (matxista, homofoboa, arrazista, xenofoboa...) edo biolentzia eragin dezakeen portaera bat ikusten dugunean.*

h) *Nire ikaskideetako bat gaizki pasatzen ari dela ohartzen banaiz.*

i) *Jakiten badut Internet bidez (Tuentin edo Youtuben, adibidez), norbaitekin pasatzen ari direla.*

j) *Ikaskideren baten gertuko norbait hiltzen denean.*

k) *Greba deitzen denean.*

l) *Ikasgelan gatazkaren bat dagoenean.*

m) *Eta nire ikastetxean jarduerak bultzatu nahi baditut (txapelketak, bidaiak...). Zer bultzatu nahi zenuke zure ikastetxean?*

n) *Otutzen zaizu beste egoerarik?*

BESTE PERTSONA BATZUEK EMAN ZITUZTEN IRITZIAK:

**a) Nire ikasgelara ikaskide berri bat iristen denean:**

Galdu samar edo bakarrik senti daiteke, eta gainera triste egon daiteke bere herrialdea utzi behar izan badu familia eta lagunak han utzita. Agian ez daki hemen nola funtzionatzen duten gauzek. Baliteke gurea ez bezalako historia izatea, edo gauza desberdinak ikasi izatea... Gauza hauetakoren bat egiten ahal dut:

* Apunteak utzi.
* Ikaskideak aurkezteko dinamika bat antolatu.
* Bere herrialdeari edo aurreko ikastetxeari buruz galdetu.
* Ikaskideei eskatu ikasle berriari gure taldean ongi sartzen laguntzeko.
* Zorionak eman, ikastalde on bat egokitu zaiolako. Taldean parte hartzera gonbidatu eta parte hartzea eskertu.
* Gaztelaniaz hitz egiten ez badaki ahal dudana azalduko diot eta keinuekin komunikatuko naiz berarekin. Bere hizkuntzako hitz batzuk erakusteko ere eskatuko diot.
* Nire koadrilarekin ateratzera gonbidatu.
* …

**b) Nire ikaskide bat gaixotzen denean:**

* Telefonoz deituko diot. Gelakoak arduratuta daudela esanen diot. Laster sendatzeko esanen diot.
* Arazoa egun bat baino gehiago luzatzen bada edo ospitalera joaten bada, bisita antolatzen saiatuko naiz. Ezin badut bisitatu, telefonoz deitzen saiatuko naiz, horretarako zuzendaritzari ikastetxeko edo institutuko telefonoa erabiltzeko baimena eskatu behar badiot ere.
* Apunteak bidaltzeko sistemaren bat antolatuko dut. Adibidez, ikasgelan apunterik onenak dituenari baimena eskatuko diot, fotokopiatu eta igortzeko.
* Irakasleei arazoa jakinaraziko diet eta, ahal badut, gaixo dagoen ikaskidearen telefonoa emanen diet, harekin harremanetan jartzea beharrezkotzat balute ere.

**c) Ikaskideek eskatzen badidate taldearen izenean irakasleei zerbait esateko:**

- Lehenengo begiratuko dut eskatzen didatenarekin ados nagoenetz.
- Ados banago nire izenean ere mintzatzen ahal naiz, taldearen ordezkari gisa aritzeaz gain. Ados ez banago esaten ahal dut taldearen izenean hitz egitera natorrela, nire iritzia beste bat izan arren.
- Begiratuko dut esan behar dudan horrek irakasle taldearekin zerikusia duen; hala bada, tutorearengana edo irakasle jakin batengana joko dut.
- Pentsatuko dut nola joan eta nola jokatu, betiere, pertsonari errespetua gordez baina gaiarekiko irmoa eta argia izanez.
- …

**d) Uste badugu irakasle baten jokaera kezkagarria dela eta ez badigu jaramonik egiten edota esatera ausartzen ez bagara:**

- Funtsezkoa da kontuan izatea beti errespetatu behar direla pertsonak.
- Komeni da lagun gaitzakeenarengana jotzea; ordena logikoa hau izaten ahal da: lehenengo tutorearengana, gero ikasketa-buruarengana, eta azkenik zuzendariarengana.
- Zalantzak baditut konfiantzazko heldu bati aholkua eskatuko diot (tutoreari, orientatzaileari...).
- …

**e) Batzar bat zuzendu behar dudanean:**

1. Aurretik:

   - Gaia argi izanen dut.
   - Hitz egiteko txandak antolatuko ditut. Adibidez, norbaitek besoa altxatzen badu, beste ordezkariak arbelean idatziko du haren izena eta hitza emanez joanen gara.
   - Tutoreari astia emateko edo irakasleren batekin hitz egin dezan eskatuko diot. Ziurtatuko dut ikastetxeak onartzen duela gure batzarra.

2. Egiten den bitartean:

   * Jendea isildu arte itxaronen dut hitz egiten hasteko.
   * Esanen dut ordena mantentzea ezinbestekoa dela elkarrizketan aritzeko.
   * Gaia aurkeztuko dut.
   * Hitza ematen hasiko naiz.
   * Proposamenak eskatuko ditut.
   * Beharrezkoa bada, bozkatuko dugu.
   * Batzarra itxiko dut ikaskideei eskerrak emanez.

3. Ondoren:

   * Informo Informatu behar dudana informatuko dut.
   * Akta idatziko dut, neronek eta beste ordezkariak sinatuko dugu, eta ikasgelako kortxoan esekiko dut.

Bi iradokizun: ez dut gainerakoek baino gehiago hitz eginen eta zainduko dut batzarra ordenaz eta errespetuz egin dadin. Lasaitasuna gordeko dut, saiatuko naiz oihu ez egiten eta besteei gauza bera egin dezaten eskatuko diet, bereziki giroa berotzen hasten bada.

**f) Gure ikastetxean / institutuan zerbaitek ez duela behar bezala funtzionatzen ikusten dugunean:**

   * Komeni da lagun gaitzakeenarengana jotzea; ordena logikoa hau izaten ahal da: lehenengo tutorearengana, gero ikasketa-buruarengana, eta azkenik zuzendariarengana.
   * Zalantzak baditut konfiantzazko heldu bati aholkua eskatuko diot (tutoreari, orientatzaileari...).
   * …

**g) Diskriminazio portaera bat (matxista, homofoboa, arrazista, xenofoboa...) edo biolentzia eragin dezakeen portaera bat ikusten dugunean:**

- Argi gelditu behar da edozein motatako portaera umiliagarrien aurka nagoela. Nire ikasgelan egoera orotan tratu berdintasuna sustatzen dugu eta gure harremanak errespetuan oinarrituta eraikitzen ditugu. Hori sumatu egin behar da, gure araua da.
- Gure konfiantzako heldu batekin komentatuko dugu. Tutorearekin edo orientatzailearekin, kasu.
- Ikaskideekin egoera komentatuko dugu, berdintasuna sustatzen duten jarrera demokratikoak babesteko aliantzak bilatzeko moduan. Portaera onartezinak dituena errespetatuko dugu, baina portaera hori argi eta garbi arbuiatuko dugu.

**h) Nire ikaskideetako bat gaizki pasatzen ari dela ohartzen banaiz:**

- Zer gertatzen zaion ulertzen ahaleginduko naiz. Nola sentitzen den pentsatuko dut. Beregana hurbildu eta saiatuko naiz ongi sentiarazten, behar badu bere arazoaz mintzatu dadin.
- Bere lagunak izan daitezkeenekin hitz eginen dut, denon artean lagun diezaiogun.
- Bere eskura jarriko natzaio, errespetuz eta nire onena emanez.
- Arazoa serioa izan daitekeen susmoa badut, tutorearekin edo orientatzailearekin hitz eginen dut.

**i) Jakiten badut Internet bidez (*Tuentin* edo *Youtuben*, adibidez), norbaitekin pasatzen ari direla.**

- Sufritzen egon daitekeenaren alde eginen dut.
- Bere burua defendatzen lagunduko diot.
- Nire konfiantzako pertsonei komentatuko diet, ea zer irizten dioten.
- Nire tutorearekin hitz eginen dut, ea pentsatzen eta ongi jokatzen laguntzen didan.
- *“Nire ikaskideetako bat gaizki pasatzen ari dela ohartzen banaiz”* ataleko gomendioei ere kasu emanen diet.

**j) Ikaskideren baten hurbileko norbait hiltzen denean:**

* Tutoreari jakinaraziko diot. Beharbada jakinen du.
* Ikasgelan jakinaraziko dut, eta agian gainerako ordezkariei ere bai.
* Pentsatuko dut egokia ote den tanatoriora edo hiletara joatea, loreak erostea, bisitan joatea, zerbait idaztea...
* Serio pentsatuko dut nola lagundu ikaskide horri eta ikasgelako ekintza horren buru izanen naiz. Ataza honetan tutorearen aholkua entzunen dut. Deitzen ahal diot, edota tanatoriora edo etxera bisitan joan, hiletara joan eta ikaskidearengana hurreratu gero. Beste ikaskide batzuk edota irakasleak ere joatera susta ditzaket.
* Egoera kontuan izanen dut klasera itzultzen denean. Ahaleginduko gara astunegiak izan gabe ikaskidea gure artean ongi sentiarazten, hots, adi egonen naiz eroso egon dadin eta errespetatu eginen dut.

**k) Greba deitzen denean:**

* Gogoan izanen dut erabaki kolektibo gisa klasera ez joateko eskubidea DBHko 3.etik aurrera bakarrik onartzen duela legeak. 47/2010 Dekretuko hirugarren xedapen gehigarriak dio neurri horiek soilik hezkuntzaren gaineko erabakiekiko desadostasunekin lotutako gaietarako direla. Proposamen arrazoitua idatziz aurkeztu behar da bai ikastetxeko zuzendaritzan bai ordezkarien batzordean, gutxienez ere greba baino hiru eskola egun lehenago. Zuzendaritzan idatziz aurkeztu beharreko proposamenean agertu behar dira zergatia, deitzailea eta zer egunetan eta zer ordutan eginen den. Sinatu behar dute gutxienez DBHko 3.etik aurrerako ikasleen %15ek edo DBHko 3.etik aurrerako ordezkarien %75ek. Ikasleek bozketa sekretua eginen dute eta gehiengo absolutua atera beharko du onartua izateko. Ordezkarien batzordeak emaitzak jakinaraziko dizkio zuzendaritzari, ikasgelaka, greba egin baino bi egun lehenago. Zuzendaritzak, prozesua eta emaitzak ikusirik, erabakiko du justifikaturik dagoen klasera ez joatea eta idatziz jakinaraziko die ikasleei, familiei eta guraso elkarteko buruari.

* Batzarra ikastorduetan egin behar bada baimena eskatuko diot tutoreari, zuzendaritzak dagoeneko batzarra antolatu ez badu. Kontuan izanen ditut ikastaldearen batzarra egitearen gaineko iradokizunak.
* Ahaleginduko naiz denek aukera izan dezaten beren iritzia adierazteko, gehiengoarena edo beste bat izan.

**l) Ikasgelan gatazkaren bat dagoenean:**

* Bitartekotza bultzatuko dut. Gai naizela uste badut nik neuk burutuko dut, bestela, egin dezakeen beste norbait bilatuko dut.
* Gatazka larria bada, tutoreari esanen diot edo ikastetxeko bitartekotza taldeari jakinaraziko diot.

**m) Ikastetxean zerbait bultzatu nahi badut:**

* Amesten dut gure ikastetxea nolakoa izanen litzatekeen nik proposatuko dudana lortzekotan.
* Ikaskideen artean aliatuak bilatuko ditut, eta amets eta ideiak komentatu eta partekatuko ditut haiekin.
* Irakasleen artean aliatuak bilatuko ditut.
* Proposamen bat idatziko dut, hau azalduz:
* Zertan datzan egitasmoa.
    - Helburuak (zer lortu nahi dudan egitasmoarekin).
    - Abantailak eta desabantailak.
* Izanen ditugun beharrak. Beharrizanak materialak eta pertsonalak izaten dira.
* Zuzendariari eskaera gutuna idatziko diot eta proposamena atxikiko. Zuzendariaren eskura geldituko naiz, gaiari buruz hitz egin nahi badu.

# E. **Jazarpena** (*bullying*)

## KONTZEPTUAK ARGITZEN: BERDINEN ARTEKO JAZARPENA

**Tratu txar mota bat da, ondoko ezaugarriak dituena:**

- Nahita egina.
- Min egiten du.
- Ikasle bat edo ikasle talde bat (neskak zein mutilak) ahulagoa den norbaiten aurka jarduten dute.
- Denboran irauten du.
- Abusua dago jazarlearen aldetik.
- Erasoak kalte larria eragiten dio biktimari.
- Ikasle baten aurka egiten da, ez talde baten aurka

## ESKOLA JAZARPEN MOTAK:

**FISIKOA.** Adibidea: Egunero, klasera sartzerakoan zain egoten zaizkio Kikori, kokotekoen eta "lasaigarrien" pasabidea egiteko. Kiko ahalegintzen da irakaslea ikasgelan dagoenean iristen, gaizki pasatzen ari da baina ez daki zer egin, ubelduren bat du eta gero eta min handiagoa ematen dio. Oso triste dago.

**AHOZKOA**. Adibidea: Miren lasai asko iraintzen dute, askok egiten dute hori, "mozola" eta "akoplatua" deitzen diote beste neskengana hurbiltzen denean. Mirenek egoera ez du batere gustuko baina ez daki handik nola atera, besteen desberdin sentitzen da, triste dago, sarritan du norbaitekin hitz egiteko gogoa baina honezkero ez daki norengana jo.

**SOZIALA**. Adibidea: Karla baztertzeko ados jarri balira bezala da. Aurrekoan irteteko geratu ziren baina Karlari ez zirela irtengo esan zioten. Gertatuaren berri izan zuenean Karla triste-triste, nahasita eta bakarrik sentitu zen.

**ZEHARKAKOA**. Adibidea: Mutil batzuek beste batzuk konbentzitu dituzte Mikel izorratzeko, eta baita mehatxatzeko ere. Mikel oso galduta, bakarrik, triste, nahasita sentitzen da. Ez du ulertzen zer ari zaion gertatzen.

**ZIBERJAZARPENA**. Adibidea: Izarrek Luzia iraindu du Tuentin, gainerakoek Luzia iraintzen jarraitu dute eta azkenean mundu guztiak izan du irain eta mehatxuen berri. Luziak Tuenti irekitzen duen bakoitzean, triste-triste eta suminduta sentitzen da

→ **Hainbat jazarpen maila daude; maiz eskuetatik ihes egiten du egoerak. Sufrimendu handia eragiten ahal du eta batzuetan, modu argian ez bada ere, estortsioak eta mehatxuak izaten dira. Kasu guztietan jazarpen psikologikoa gertatzen da.**

## NAFARROAKO ARAUDIAK DIOENA:

**204/2010 Foru Agindua:**

Eskola jazarpena esaten zaio ikasle batek edo batzuek ikaskide bati hitzezko irainak, gizarte bazterketa, larderia psikologikoa edo/eta eraso fisikoak behin eta berriz eragiten dizkiotenean ematen den portaerari. Jazarpenezko portaera hori edozein unetan eta tokitan gertatzen ahal da, baita teknologia berriak erabiliz ere. Horretan, ikastetxe bateko zein batzuetako ikasleek har dezakete parte.

Ikastetxeak behartuak daude indarkeriazkoak eta sufrimendu eragileak izan daitezkeen gertaerak aztertzera, bereziki, eskola jazarpena gertatzen ari dela susmatzen dutenean. Hezkuntza erkidego guztiak argi izan behar du indarkeriazko gertaeren aurrean nahitaezkoa dela hezkuntza esku-hartzea.

Hezkuntza komunitateko edozein kide behartua dago jazarpen gertaeren eta bestelako indarkeriaren berri ematera zuzendaritzari, haien jakitun izanez gero.

**47/2010 Foru Dekretua:**

Pertsonak errespetatzea ikasleen betebeharra da. Betebehar horrek berekin dakar, besteak beste, egoera baketsua sustatu eta praktikatzea, indarkeria mota guztiak baztertuz.

Ikasle guziek dute errespetatuak izateko eskubidea. Eskubide honen barruan sartzen da, besteak beste, eraso fisikoen, emozionalen, moralen edo bestelakoen kontrako babesa.

Bizikidetzarako bereziki kaltegarriak diren portaeren artean daude:

Irainak, kalumniak, ofentsak, isekak edo umiliazioak, laidoak, mehatxuak, indarkeria fisikoa edo bestelakoa, jazarpena...

Bizikidetzarako bereziki kaltegarria den portaera baten jakitun edo lekuko izatea eta zuzendaritza taldeari ez jakinaraztea.

## Ariketa:

TALDEAN SOLAS EGINEN DUGU:

- **Ezagutzen duzue aipatu dugunaren antzeko zerbait? Zer gertatu da/zen?**
- **Azaldutako kasuetako bat antzeztuko dugu.** (Pertsonaiak: jazarle bat edo bi, biktima eta hiru lekuko)
- **Antzezpenaren ostean galdera hauek erantzunen ditugu:**

ERASOTZAILEEN PAPERA EGIN DUTENENDAKO GALDERAK:

Zer egiten diot? Zer egin diot?

Zergatik egiten diot? Zergatik egin diot?

Nola sentitzen naiz?

Nire ustean, nola sentitzen da biktima?

Zer ari naiz irabazten eta zer galtzen?

BIKTIMAREN PAPERA EGIN DUENARENDAKO GALDERAK:

Zer egin didate? Zer egiten didate?

Zergatik egiten didate? Zergatik egin didate?

Zer egin dut hori merezi izateko?

Nola sentitzen naiz?

TALDEKOEN PAPERA EGIN DUTENENTZAKO GALDERAK.:

Zer egin dugu? Zer egiten ari gara?

Zergatik jokatzen dugu horrela?

Nola sentitzen gara?

Gure ustean, nola sentitzen da erasotzailea?

Gure ustean, nola sentitzen da biktima?

IKUSLEENTZAKO GALDERAK:

Nola jokatu du taldeak?

Zer ideia ematen ahal dizkiogu taldeari?

Zer eginen genuke talde horretako kideak bagina?

PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONAK:

## ERASOTZAILEA

Edonor izaten ahal da erasotzaile. **Batzuetan** ezaugarri hauek ditu:

- Agresiboa eta oldarkorra.
- Trebetasun sozial eskasekoa.
- Erru sentimendu txikia du.
- Zail egiten zaio biktimaren sentimenduak ulertzea.
- Zail egiten zaio amorrua kontrolatzea.
- Bere harremanak gatazka iturri bezala ulertzeko joera.
- Bortitza.
- Zenbaitetan, autoestimu gutxikoa. Segurtasun itxura.
- Biktima baino indartsuagoa.
- Bere harreman pertsonaletan erantzun zakarrak.
- Zenbaitetan, biktimak baino zaharragoak.
- Ez dira ongi txertatuta egoten eskolan.
- Zenbaitetan, eskolako kontuetan interes gutxi dute.
- Familiako arazoak izaten ahal dira.
- Taldeetan gutxi maitatuak.
- Aise haserretzen dira.
- "Mutil gaiztoaren" ospea du.
- …

## BIKTIMA

Edonor izaten ahal da biktima. **Batzuetan** ezaugarri hauek ditu:

- Mutila zein neska.
- Ahula, zalantzatia, zuhurra, sentibera, lasaia, lotsatia, autoestimu gutxikoa, antsietate handikoa. Erasoko duten beldur da.
- Zenbaitetan mugimenduen koordinazio txarra. Zenbaitetan, erraz egiten du negar.
- Etxean denbora asko ematen du.
- Asertibitate gutxi.
- Babestuegia.
- Txikiagoekin egoteko joera.
- Ez da erasotzailea (probokazio jarrerak izaten ahal diren arren).
- Batzuetan badi zerbait diferentea bere irudian.
- Zenbaitetan, noten jaitsiera.
- Gustu desberdinak.
- Zenbaitetan, ezohiko sexu-joera.
- Beste kultura talde batzuetatik etorria.
- …

## ▶ TALDEA

Taldearen gaia jazarpen kasuen testuinguruan lantzeko lantaldeak eratuko ditugu, gehienez ere sei lagunekoak. Lantaldeetako pertsonak adin desberdinetakoak izanen dira eta ikastetxeko ikasmaila desberdinak ordezkatuko dituzte.

**Ariketa**

Hona hemen jazarpen fenomenoen aurrean lekukoek burutu ditzaketen ekintzak.




Beraz, honelako pertsonak ditugu:

1. Jazarpena onartu ez eta gelditzen saiatzen direnak. (Ez dute onartzen / zerbait egiten dute)
2. Jazarpena onartu ez baina gelditzen saiatzen ez direnak. (Ez dute onartzen / ez dute ezer egiten)
3. Jazarpena onartzen dutenak baina bertan parte hartu gabe. (Onartzen dute eta ez dute ezer egiten)
4. Jazarpena onartu eta bertan parte hartzen dutenak. (Onartzen dute eta egiten zerbait egiten dute)

**1.** Zergatik baztertzen da edo ez da onartzen eta jarrera aktiboa da? Zergatik daude jazarpena onartu ez eta gelditzen saiatzen diren pertsonak?

..........................................................................................................................................................

..........................................................................................................................................................

..........................................................................................................................................................

..........................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

**2.** Zergatik baztertzen da edo ez da onartzen baina jarrera pasiboa da? Zergatik daude jazarpena onartu ez baina gelditzen saiatzen ez diren pertsonak?

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

**3.** Zergatik onartzen da jarrera pasiboarekin? Zergatik daude jazarleak egiten duenarekin ados egon arren jazartzen ez duten pertsonak?

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

..................................................................................................................................................................

